

**ATZEAH ERAKUSTEN DU AURREA NOLA  
DANTZATU**

Maialen Akizu Bidegain, 13 urte

*Urretxu*

Lau urte nituela ondo gogoan dut zer inbidia pasatzen nuen lagunekin. Parkera askotan joaten ginen eta kontu-kontari hasten ginen betiko laurok: Sara, Nerea, Iban eta ni.

–Badakizue zer? –hasi zen behin Sara ahots ozenez.

–Zeerr?! –galdetu genion besteok jakin-minez.

–Nire aitaxo gero nire bila etorriko da kotxe berrian.

–Alaaa –esan genion denok inbidiaz.

–Kotxe berria munduko politena da, eta handiena, eta hegan ere egin omen dezake –denok zur eta lur geunden–. Eta gero itsasoa ikustera eramango nau.

–Ba ni igandean aitaxorekin parke handi-handi batera joan nintzen –bota zuen Nereak–, dena pilota koloretsuz beteta zegoen eta txirrista pila bat zeuden. Ia zeruraino iristen zen txirrista bat zegoen. Ume txiki batzuk negarrez hasten ziren, baina ni goraino joaten nintzen eta segundo bat baino gutxiago pasatzen nuen behera iritsi aurretik.

–Jo ba, ni atzo aitatxorekin izozkia jatera joan nintzen –azkenik Ibanek–, txokolatezko izozki handi-handi bat jan nuen nik bakarrik. Ez dakizue zer ona zegoen. Ummmm –mingainarekin ezpain inguruan buelta oso bat eman zuen–. Nire aita munduko aita onena da.

–Ba nire aita unibertsoa onena! –harro Nereak.

–Ez ba, nirea zurea baino hobea da –haserre xamar Sarak.

–Nirea da onena –Ibanek ozen.

Eta horrela ez dakit zenbat denbora egon ziren. Ni bitartean isilik, harik eta galdetu zidaten arte:

–Lore, eta zure aitaxo? Nolakoa da zure aitaxo?

Denen begirada handi-mandiak sentitzen nituen gainean. Bi begiak bustitzen hasi zitzaizkidan eta malkoren bat lurrera jausi aurretik korrika abiatu nintzen amatxorengana.

–Zer pasatzen zaizu, laztana? –negarrez jarraitzen nuen eta ezin nintzen gelditu. Amak besotan hartu eta etxera eramanez ninduen.

Uste dut egun hartan hasi zitzaidala jakin-mina pizten. Beste haur guztiek aita zuten, eta nik zer? Zein zen nire aita? Bazkaltzen ari ginela egin nion amari galdera, eta orduan ohartu zen ez zela ez lehenengo, ez azkeneko aldia izango:

–Ama, zergatik ez dut nik aitaxorik?

Eztulka hasi zen orduan. Kontrako eztarritik joan zitzaiola haragi pusketa bat esan zidan eta bere gelara joan zen noizbehinka eztulen bat eginenez. Ni bitartean salara joan nintzen. Banekien eta ordurako hasia zegoela *Heidi*, eta ezin nuen galdu;

ni baino bakartiagoa zen neskatila hura, hark ez zuen ez amarik, ez aitarik.

Denbora aurrera zihoan eta nire buruan geroz eta galdera gehiago pilatzen ari ziren. Amari, amonari, izebei, osabei, lehengusina zaharragoei, irakasleei... denei galdetzen nien ea nire aita nor zen, ea ba ote zekiten non zegoen. Inork ez zidan erantzunik ematen. Denek ihes egiten zuten galdera hura entzundakoan, edota oso urduri jartzen ziren; zerbait erantzunez gero, bizitza arriskuan izango banu bezala.

Galderak egiten aspertu nintzen eta bakarrik segitzea erabaki nuen jakinbide berezi hartan. 13 urte nituen jada eta detektibe liburuak asko irakurriak nituen eta ez zuen hain zaila ematen pistak aurkitzeak. Etxean hasi nintzen bila. Apalak, armairuak, ganbara... dena miatzeko prest nengoen, izen, argazki edo eta usain bat aurkitzarren. Baina ezer ere ez. Lurrak dena irentsi izan balu bezala zen. Pixka bat atsekabetuago baina ez nuen amorerik eman, beti izan bainaiz burugorra. Interneten bila hasi nintzen Ibanekin batera. Iban nire lagun onena zen eta informatikan gure institutuko adituenetako bat. Berari ere *kasu* hau interesatzen zitzaion, beti piztu izan baitzion halako grina bat pelikuletan ikusitakoa bizitzeak. Ibanek bere ama Rosari ere askotan galdetzen zion ea zer zekien nire aitari buruz, baina hark ere ezentzuna-rena egiten zuen, trapu zaharrak norberaren etxean astindu behar direla esanez.

Astelehen euritsu batean liburutegirako bisita egin genuen biok. Ordenagailu bat hartu eta *Google*-n hasi ginen bila. Genituen pista bakarrak nire abizenak ziren:

–Aitaren lehen abizena soilik zekiat. –esan nion lotsati.

–Beno, ez dun asko baina bota.

–Atin –esaten nuen ahala tekla zapaltzen zituen Ibanek. *Intro* botoiari eman eta emaitzak ikusten hasi ginen. Berrogeita hamar orrialdetik gora aurkitu zituen eta itxaropentsu hasi ginen bana-bana begiratzen denak. Baina hogeita bosgarren orrirako jada etsita geunden. Argazkiei kasu gutxi egiten genien, bai baikenekien han ez genuela baliagarri izan zekigukeen ezer aurkituko.

–Sentitzen dinat. –esan zidan Ibanek triste, ezin izan baitzuen ezer egin. Pelikuletan hain erraza ematen zuen, eta bera ez zen gai izan ezertarako–. Hire amarekin hitz egin beharra dun, esaizkion gauzak argi, esaion jakin egin nahi dunala, eskubidea dunala jakiteko. Garbi hitz eginda ulertuko din.

Eta etxera joan ginen. Bide osoan ez genuen hitzik egin. Ni neure buruarekin ari nintzen hizketan, etxean bota behar nien sermoia behin eta berriz errepikatzen, gauzak nola esan pentsatzen. Iban lurrera begira joan zen etxeraino. Asko atsekabetu zen bere lanarekin eta porrot bat bezala hartu zuen.

Etxera iritsi nintzenean jada afalordua zen. Ama sukaldean ari zen afaria prestatzen. Amona, berriz, gantxiloa egiten, ohi bezala, butaka zaharrean.

Goxo-goxo zeuden biak eta afalostean hitz egitea izango zela onena begitandu zitzaidan. Zortziak laurden gutxi ziren. Telebistara joan ginen. Nahiz eta pantailari begira egon, ez nintzen arretarik jarzen ari. Buruan afalondorako esan nahi nuen hura laino beltzak bezala nuen pentsamenduan bueltaka.

–Afaltzeraaaa!!! –oihu egin zuen amak sukaldetik.

Zopa genuen platerean eta zurrupada hotsak ziren gure elkarrizketa mutu bakarra. Hura zen momentua. Arnasa sakon hartu eta hala esa nuen:

–Ama, nor da nire aita? –zopa jateari utzi genion hirurok. Gure etxean jada ez zen galdera arrotza, baina hala ere, betiko lez, haize hotz bat sartu izan balitz bezala izan zen.

–Ummm... aukeran gatz gehixeago behar du –esan zuen amonak. Ama mahaitik altxa eta armairura joan zen gatz bila.

–Ama, nor zen nire aita? –berriro ere isilunea. Gatza ekarri eta zopari pittin bat bota zion, aurretik gatz larregi probatua baitzen–. Ama, ez dakit zergatik ez didazun esan nahi, baina eskubide osoa dut zein den jakiteko. Eta garbi izan zuk ez badi-dazu esaten, nik bilatuko dudala. Zuk nahi ez izan arren, beti izango baita nire aita.

Segundo batzuk elkarri begira egon ginen. Baina ez zuen ezertxo esaten. Haserre, nire gelara egin nuen hanka, baina sukaldeko atea danbateko batez itxi aurretik amaren ahots isila aditu nuen.

–Ondo da –hasperen egin zuen–. Dena kontatuko dizut.

Zur eta lur gelditu nintzen. Ez nuen uste nire sentimenduak kontatzeak hainbesteko eragina izango zuenik. Mahaian eseri nintzen eta belarriak zorroztu nituen. Amona altxa eta salara joan zen.

–Oso gaztea nintzela ezagutu nuen. Tuntun bat nintzen. Ederra. Buruarina. Mutil gazte bat ezagutu nuen. Zeharo maitemindu nintzen. Hain ikusten nuen galaia, hain jatorra, hain mutil ona. Ezagutu eta handik bi hilabetera elkarrekin bizitzen jarri ginen. Ingurukoek esaten zidaten ez zitzaidala komeni, ez nuela ondo ezagutzen, gazteegiak ginela bakarrik bizitzeko... Baina ez nien kasurik egin. Bereko hutsa izan nintzen.

Negarrez hasi zen. Amona salatik begira antze-man nuen. Bizkarra laztandu eta musuzapi bat eman nion. Malkoak sikatu zituen. Gero aulkitik altxa zen eta bizkarraldean zituen orbain luze batzuk ikusi nituen, aspaldiko laban sastadak ziruditen. Beldurtu egin nintzen.

–Ondoren hasi zen jolasa. Berarentzat hori bainintzen ni. Entretenimendu bat. Gauero parean aurkitzen zuen lehen tresnarekin kolpatzen ninduen. Eta hala etorri zinen zu. Margo gorri artean bakerik ez zegoen etxe batera. Norbaitek zer gertatu zitzaidan galdetzean, eskaileretatik behera erori nintzela esaten nuen beti. Gehiegitan akaso. Baina aitzakia merkeegia zen, eta ez zidan asko iraun. Salaketa hitzak beldurra ematen zidan, nire bizitzak ez zuen ezer balio, eskerrak zu zintudan. Egun batean gehiegi edanda etorri zen. Nirekin harremanak nahi zituela eta oihuka hasi zen. Nik

aurre egin nion eta sukaldeko labana hartu eta ikusi duzuna egin zidan. Sendatu nintzenean amak lagundu zidan salaketa jartzen. Egin beharra neukan. Ez nire bizitzagatik, zugatik baizik.

Biok masailak bustiak genituen. Zutitu eta besar-kada bat eman nion amari. Pixka bat lasaitu ondoren, paper bat eman zidan:

Migel Atin

Laster etxe aldaketako garraio zerbitzuak

Hiru-bide, 17. Telf: 987 35 65 67

–Hemen egiten du zure aitak orain lan. Eskubide osoa duzu ezagutzeko. Zure antz handia du eta berehala ohartuko zara nor den. Asko aldatu dela esaten dute, oso gizon jator eta arduratsua bihurtu omen da. Baina usteak, beti ustel. Kanpoan hala ikusi arren, kanpoan uso eta etxean otso. Nik ondo asko ezagutzen dut esaera hori. Nahi baduzu, hitz egizu berarekin. Nik ezin diot begiratu ikara sentitu gabe.

Ibani goizean institutuan dena kontatu nion. Ez zuen kontatutakoa sinisten, eta ea laguntzea nahi nuen galdetu zidan. Ezetz esan nion, nahiago nuela bakarrik egon berarekin. Klasean irakasleari ez nion kasurik egin. Nire aita. Bera ezagutu behar nuen. Gogoia eta amorrua sentitzen nituen. Etxera ere joan gabe, txirrinak jo ostean arrapaladan abiatu nintzen. Banekien non zegoen Hiru-bide kalea eta ez zitzaidan zaila egin lantegi hura aurkitzea. Ez nuen telefonoz deitu bertara. Pareko aulki batean zain gelditu nintzen. Langileak geroz eta gehiago ari ziren ateratzen, baina ez zuen inork nire antzik.

Urduri nengoen, pentsakor eta begira nengoela gizon bat agertu zen ezerezetik.

Hantxe neukan. Hamar bat metrora. Urte luzetan sufritu eta informazioa nolnahi lortu ondoren, bide luze hartako azken hamaika pausuak geratzen zitzaizkidan. Gizon argala zen, azal zurikoa, nik bezalako begi txiki ilunak zituen, nik bezalako sudur zabala, eta nik bezalako gabardina luze bat zeraman. Enpresarioa zela urrutitik nabari zitzaien. Egunkaria irakurtzen ari zen, edo begiratzen bestela, abiadan pasatzen baitzituen orriak. Tabernara sartu eta tonu ozenez barra ertzean zain zeuden denen txanda pasa eta *“Bi garagardo handi, Mariano, dauden garestienak. Etxearen kontura izango da, ez?”* esan zuen. Ondoren, gertuen zuen mahaira hurbildu zen. Zerbitzari neska gazte atzerritarri zer bait esan zion xuxurlaka belarrira eta zerbitzariak buelta erdia eman zuenean ipurdia ukitu zion esku zartateko batez *“Ioosss... Kolonbiar kabroi hoiek neskak eiten gutxinez badakie!”* Eta lasai eseri zen, ondoan zuen *“Prohibido fumar”* kartelaren aurrean purua errez.

Hamalau urteren ondoren besarkatu eta jipoitu egin nahi nuen. Elkarrekin hitz egin, nire bizitzan sentitu dudana kontatu. Txikitan berarekin izozki handi bat jateko desioa izaten nuen, parkean paseatzekoa, kotxean urrutira joatekoa, eskutik heldu eta inoiz ez askatzekoa. Baina buelta erdia eman eta etxera joan nintzen. Nik ez nuen aitarik! Hura ezin zen nire aita izan. Hura gizon gorrotagarri bat zen eta nik aita maite nuen.